

2020ko emaitzen kontura otsailean ordaindutako aurrerapena osatzen du

Kutxabankek 81 milioi euroko dibidendua banatu die Fundazio akziodunei

- **Ekarpen hau Erakundeak lortutako emaitza garbiaren % 60ra iristen da, guztira 108 milioi eurotik gora kokatzen baita**

2021eko urriaren 1ean. Kutxabanken Akziodunen Batzorde Nagusiak, Administrazio Kontseiluak proposatuta, Taldeak **2020an** lortutako emaitzen kontura **81 milioi** euroko dibidendua banatzea adostu du.

Ekarpen honek 2021eko otsailean kontura egin zen 27 milioi euroko ordainketa osatzen du. Beraz, Fundazio akziodunek 2020ko emaitzen kontura jasoko duten zuzkidura osoa **108 milioi** eurotik gorakoa izango da.

Europako Banku Zentralak bankuei dibidendua berreskuratzeko ahalmena eman ondoren egin ahal izan da banaketa hau, 2020. urtean zehar bertan behera gelditu baitzen pandemiaren ondorioz.

Gomendio hau irailaren 30etik aurrera indargabetzea erabaki zuen EBZ-k 2021eko uztailean, ekonomiaren egoera hobetu zelako eta, ondorioz, "kreditu-erakunde bakoitzak dibidenduak banatu eta akzioak berrerosteko dituen planen zuhurtziari buruzko ikuskaritza banan-banan eta sakonki egin zitekeelako".

Kaudimenean eta kapitalean sendotutako egoera izanik, Kutxabankek akziodunei banatzen dien ordainsaria handitzen jarraitu ahal izan du. 2020. urteari dagokionean Taldearen **emaitza garbiaren % 60** da, emaitzak banatzerakoan ezarritako kaudimen baldintzak arriskuan ez jartzeko ahalmena baitu Bankuak.